

Nafarroako aurtengo selektibitatea ikasleen %91,7k gainditu dute


Euskarazko lerroan %90,88koa izan da azterketa gainditu dutenen kopurua

Alberto Barandiaran / Iruñea

Selektibitateko azterketa euskaraz egin zuten ikasle nafarren %90,88k gainditu dute aurtengo azterketa, eta portzentaia %92,47koa izan da erdarazkoen artean. UBI A ereduan egin zutenen artean, %71,88koa da gainditu dutenen kopurua. Portzentaia hauek aurreko urteetako antzekoak dira, nahiz eta D ereduan iaz baino gutxiagok gainditu duten.

NAFARROAKO ikasleek bikiarekin gainditu dute urteroko azterketarik gorrotatuen eta beldurgarriena, eta beste urtebetez erakutsi dute selektibitate egiteko baino gehiago ordenatzeko balio izaten duela azterketak. Aurtengo emaitzek, bide batez, ezetsi egiten dute iaz euskarazko ikasleen emaitzekin sortu zen eztabaida, eta ondorioztatzen oso maila pertsua dagoela ikasleen artean, ereduak eredu.

Gogoratu behar da iaz ia zazpi puntu altuagoa izan zela D ereduko ikasleen selektibitate frogetako emaitza —%97,38koa—, eta orduan hainbat arrazoi aipatu baziren ere —esan izan zen azterketak «errazagoak» zirela, jakin gabe berdin-berdinak direla eredu guztietan frogen testuak, edo epaimahietan laxotasun handiagoz epaitzen



Ikasleak selektibitateko azterketa egiten, Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

zirela azterketak— inork ez zuen arrazoi taxuzkorik eman.

Aldeak ez dira esanguratsuak

Aurten, ordea, normaldu egin da, nolabait esateko, portzentaia. D ereduko ikasleen selektibitate frogan epaimahian egon zen Javier Etxebarria NUPEko irakaslea, eta bere esanetan, urteroko portzentaiaetan dauden gorabeherak oso lotuta daude laginekin. «A ereduan, adibidez, ikasle kopurua oso txikia da, eta asko aldatzen dira

portzentaia. Ez dira oso esanguratsuak alegia». Gogoratu behar da, gainera, selektibitatearen azken nota frogan bertan ateratzen denaren eta ikastetxetik ekartzen denaren arteko batuketa dela, eta horretan ere banan-banan alderatu beharko lirarteke emaitza guztiak ondorioak ateratzeko.

Frogaren beraren zuzentasunaz urtero ikasleen artean entzuten diren kexuak direla medio, zera uste du Etxebarria: ez dela hainbestera. «Ikastetxe ezberdinetatik ikasleek nota ezberdinak ekartzen dituzte, eta hori

nolabait berdindu egin beharra dago. Nota jaisteak ez du, berez, garrantzi handirik, guztietan gertatzen delako».

Selektibitatearen emaitzek balio ote dute, beraz, hizkuntz ereduaren balioaren gainean juzku egiteko? Ez dirudi. «Horrelako ondorioak ateratzeko kontu handiz ibili behar da, ikasgaiz ikasgai eta frogaz frogaz aztertuz. Aztertu beharko litzateke, adibidez, zergatik A eredukoek, lurralde euskaldunetan dauden zentrukoak izanda, hartzen duten A eredu eta ez D... Kopuruak oso txikiak direnez, ez dira esanguratsuak».

Hizkuntz Kontseiluaren sortzea solasgai izan zuten EKEk euskal elkarteekin antolaturiko bilkuran

■ *Ipar Euskal Herriko hizkuntz politika zutik ezar lezakeen egitura funtsezkotzat jo dute guztiek*

Lutxi Fourcade / Baiona

HIZKUNTZ KONTSEILUAREN sortzea luzaz aipatu zuten Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta euskalgintzan lanean ari diren bederatzi elkarte asteazken arratsean Uztaritzen. Izan ere, kalapita franko izan ondoren, EKEk proposatu zuen benetako hizkuntz politika bultzatzeko egitura berria bere baitan sortzea. Hizkuntz Kontseilua osatzeko proiektu konkretu bat proposatu zien bederatzi elkarteri: Ikas Bi, Ikas, Euskal Haziak, AEK, Seaska, Euskal Irratiak, EHE, UEU

eta Euskaltzaindia. Elkarte guztiak ikusi ondoren, EKEk elkarretaratu nahi zituen beren iritzia jasotzeko.

Elkarte guztiek bat egin zuten aldarrikatzeko hizkuntz politika zutik ezar lezakeen Hizkuntz Kontseilua egitura beharrezkoa dela. Alabaina, eztabaida handiak izan zituzten ikusteko nolako egitura eraiki behar zen, eta norekin. «Txosten hori zaila da, badira dudak, beldurrak eta normala da; alabaina, bileran agertu da denek zutela kementa elkarrekin lan egiteko eta zerbait eraikitzeko», azpimarratu zuen Pantxo

Etxegoin elkarte zuzendaria. Izan ere, elkarte gehiengoaren lehen proposamenaren aurka agertu bazen ere, EKEk sortutako bigarren proiektua askoz egokiagozat jo dute euskal alorrean diharduten elkarteek. Batzuk adierazi zuten ados zirela proiektu horren abiaraztearekin; AEK-k, berriz, erabakia emanen du datorren aste zuzendaritzaren bileraren ondotik. «Orokorki, emeki-emeki, aitzinera goaz eta bide onean gaitzen uste dut zerbait trinkatzeko, hala nola, Hizkuntz Kontseilu nahi dugunez», gaineratu zuen.

Alabaina, bildutako elkarteek adierazi nahi izan zituzten beren dudak eta galderak. Hain zuzen ere, EKEko proiektua proposamen bat baizik ez da, eta ziurtamen ugari beharko dira egitura martxan jartzeko. EKEren Administrazio Kontseilua iraganen da larunbatean eta datorren astean EKEko arduradunak bilduko dira Hautetsien Kontseiluarekin. Une garrantzitsua izanen da geroari buruzko proiektua gogoeatzeko. Hautetsien engaitza ahalko du egituraren sortzea eta epe luzerako iraupena.

Coca-Cola berriro merkaturatzeko baimena eman du Frantziako Gobernuak

■ *Toxikazioa zerk eragin zuen ez da ezagutzen oraindik*

Efe / Paris

FRANTZIAKO Gobernuak Dunkerqueko fabrikaren ekoiztutako Coca-Cola markako edariak berriro merkaturatzeko baimena eman zuen atzo, debekua kentzea adituek gomendatu ondoren.

Dominique Strauss-Khan Finantza ministroa izan zen berria eman zuen lehena. Aurretik, Frantziako Elikaduren Segurtasun Sanitarioen Agentziako adituek (AFSSA) Dunkerqueko fabrikako freskagarriak berriro salgai jartzea gomendatu zuten, Coca-Cola kontsumitzeagatik osasun arrikuak «txikiak» zirelako.

«Arrisku guztiak baztertu dira», azpimarratu zuen Estatuko Merkataritza idazkari Marylise Lebranchuk. Aztertutako laginetan arratoi-pozoiak aurkitu ez direlako hartu du erabaki hori Frantziako Gobernuak.

Ehun kaltetu inguru

Joan zen astean agintari frantziarrek Coca-Cola, Coca-Cola Light, Sprite eta Fanta latak merkaturatzeko debekatu zuten, Dunkerqueko lantegian ekoiztutako produktuak kontsumitzeagatik ehun bat pertsona osasun arazoak izan zituztelako.

Estatuko Kontsumo eta Osasun idazkaritzek, hala ere, Belgikara eta Luxenburgora zuzendutako edariak merkaturatzeko debekuari eutsi diote. «Dekretua ekainaren 13an Belgikan toxikazioa eragin zuten edari sortaren zatia da bakarrik», esan zuten idazkaritzetako iturriek.

Oraindik ez da jakin toxikazioa zerk eragin zuen. AFSSA-k datuak jasotzen jarraituko du azterketa epidemiologikoa egiteko eta, bide batez, edarien kontsumo eta ondoreen artean erlazioa ote dagoen jakiteko.

Frantziako tribunal batek diligentsiak irekitzea erabaki zuen Dunkerqueko ekoiztutako Coca-Cola edanda ehun pertsona izan zuten toxikazioagatik.